

Ageriko bilkura

Arratzun, 2009ko maiatzaren 30ean.

Gaur, maiatzak 30, egin da Joseba Andoni Lakarra Andrinua euskaltzainaren sarrera ekitaldia, Arratzuko San Tomas elizan, goizeko 10:30etan hasita.

Bildu dira:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Pierre Charritton, Patxi Goenaga, Joseba Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dutenak: Jean-Louis Davant, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Patxi Salaberri, Ibon Sarasola eta Patxi Zabaleta.
- Ohorezko euskaltzainak. Ezin etorria adierazi dutenak: Xabier Gereño, Patxi Oroz eta Jose Antonio Retolaza.
- Euskaltzain urgazleak: Joseba Agirreazkuenaga, Dorleta Alberdi, Kepa Altogana, Xabier Altzibar, Gotzon Aurrekoetxea, Ricardo Badiola, Gidor Bilbao, Iñaki Camino, Xabier Erdozia, Juan Manuel Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Pruden Gartzia, Sebastian Gartzia Trujillo, Juan Luis Goikoetxea, Rikardo Gomez, Joakin Gorrotxategi, Jazinto Iturbe, Jabier Kaltzakorta, Jon Kortazar, Itziar Laka, Manu Ruiz Urrestarazu, Iñaki Segurola, Koro Segurola, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta. Ezin etorria adierazi dutenak: Martzel Andrinua, Jose Mari Etxebarria, Jesus Mari Makazaga eta Paskual Rekalde.

- Batzordekideak: Gorka Intxaurbe, Amaia Jauregizar, Ane Miren Loidi, Julen Manterola, Céline Mounole eta Erramun Osa.
- Langileak: Lutxi Alberdi, Amaia Okariz, Josune Olabarria eta Resu Orbe.

Juan Jose Zearreta kudeatzaileak ekitaldiaren aurkezpen orokorra egin du. Ondoren, Xabier Kintana idazkariak, Barne Erregeletako 64.8 eta 64.9 ataletan esaten dena betez, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoa azaldu du.

Josu Sabin Olano Arratzuko alkatearen ongietorriak eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren agurrak hasiera eman diote gaurko ekitaldiari.

Ondoren, Jose Luis Lizundia eta Aurelia Arkotxa euskaltzainek lagunduta, batzar tokira sartu da Joseba Lakarra «Aitzineuskera berreraikiaz: zergatik ezker-ra?» izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzera.

Joseba Lakarra:

«Aitzineuskera berreraikiaz: zergatik ezker-ra?»

Aitzineuskararen berreraiketaren helburuak eta beharrak aipagai izan ditu bere berbaldian Lakarra euskaltzainak, baita orain arteko eboluzioa ere. Arlo horretan, «Koldo Mitxelenaren lan filologiko eta diakroniko bikaina» nabarmendu du, euskararen garapenerako ekarpen ezinbestekoa dena.

Hari jarraiki, belaunaldi oso batek ikerketa-aro emankorra gauzatu du eta Lakarrak gogoratu du bere lanaren xede nagusietako bat izan dela CVC monosilaboa, berori hitzen erro-eredu izaki. Bere hitzetan «erroen forma kanonikoaren azterketak, hitzen egiturak, jatorri eta bilakabideak lehen ez genuen laguntza eskaini digute, bide batez berreraiketaren beste alderdi batzuetarako oinarriak jartzen lagunduaz».

Joseba Lakarrak, aitzineuskara zaharrago eta sakonagoa aztertu eta proposamen bat aurkezteko baliatu du gaurko sarrera-hitzaldia. Zer dela-eta bere hitzaldiaren izenburua («zergatik ezker-ra?»)? Bada, Mitxelenak bere ikerketetan adierazi beza-la, ezker-muturra delako hainbat kontsonanteri dagokionez berreraiketarako kokagunerik zailena: «zailtasun horiek bertan diren irregulartasun ugariatatik datozelarik –adierazi du–, guztiz erakargarri bilakatzen dira aztertzailearentzat, irregularitateen azterketa baita aitzinamendu-bide nagusia hizkuntzen diakronian». Horren haritik, bada, aitzineuskara zaharrago eta sakonagoa aztertzeko proposamen bat aurkeztu du, «erroen eta hitzen ezker aldea bereziki miatuaz».

Euskararik zaharrena aztertze bide emankorra zabalik eta luzatzeko moduan dagoela uste du Arratzuko ikertzaileak. Berak planteatzen duen hurbilketa-eredua bateragarria da guztiz azken urteotan abiatutako fonologia edota morfologia berreraiketa lanekin. Bere esanetan, ikertu gabeko fenomeno eta aldaketak azaleratu direlarik, «ezinbestean lagunduko digute historiaurreko kronologia aberatsagoak eraikitzen».

Jose Antonio Arana Martija:

«*Gabon kantak eta arkaismoen bestelako mintegiak*»

Arkaismoez eta Joseba Lakarraz mintzatu da Jose Antonio Arana Martija bere hitzaldian. Lehenik, Lakarraren ibilbide akademikoa gogora ekarri du: oinarrizko ikasketak Gernikan egin zituen, batxilergoa Derion eta Euskal Filologia ikasi zuen, Koldo Mitxelena irakasle zuelarik. Doktore lehenago, eta gero katedratiko bihurtu zela ere gogorarazi du.

Arana Martijaren esanetan, Lakarrak «lan oparoa eman digu hizkuntzalari-tzaren arloan». Artean ikasle zela, argitara emandako lan batzuk aipatu ditu, eta horiek abiapuntutzat hartuta, arkaismoak, bilantzikoak eta Gabon Kantak izan ditu mintzagai euskaltzain emerituak. Izan ere, euskara arkaikoa ere Arana Martijaren lan-xedeetako bat izan da bere ibilbidean zehar, eta gainera, bide horretan, hainbat aldiz bat egin dute Lakarrak eta Arana Martijak berak. Gogoan du, esaterako, Lakarrak burututako lehendabiziko lanetako batean, «*Oharrak zenbait arkaismoz*» (1983), berak Marijesiei buruz egindako lana hartu zuela hizpide, beste hainbaten artean.

Arkaismoen ikerketan, gabon kantetan murgildu da bereziki Arana Martija, haien lexikoa eta egitura aztertzen buru-belarri, geure ondarearen altxorra hor ere gordetzen delarik. Bere esanetan, «euskalki guztietan galdu diren hitz zaharrok, arkaismo absolutuak deitzen dira. Arkaismo erlatiboak izaten dira euskalki batzuetan bizirik mantentzen direnak. Dena den, erudituek baztertzen dituzte, eta herria da horiek erabiltzen dituenak. Ahoz gordetako mito eta kantuetan bizirik jarraitzen dute, eta erran zaharretan, hots, paremiologian». Horra euskara arkaikoari heltzeko beste aukera bat.

Ekitaldiaren amaieran, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duen diploma eta domina eman dizkio Joseba Lakarrari. Ondoren, Dorleta Alberdi, euskaltzain urgazle eta kazetari arraztuarrak Juan

Bautista Bilbao «Batsi» arrazuarraren *Hau mundu arrano hau* liburuko atal bat irakurri du.

Eskola-lagunak, auzokoak eta herrikideak beren-beregi Arratzuko koruan elkartuta, Alberto Lauzirika zuzendari zutela, kanta hauek abestu dituzte: *Maitia nun zira* eta *Mendian lar artean*. Azkenik, opariak eman dizkiote Joseba Lakarri Josu Sabin Olano alkateak, Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko Letren Fakultateak eta Fakultate horretako ikerketa-taldeak, lankide eta adiskideek.

Ekitaldia eguerdiko 13:00ean bukatu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria